

GURE PLANETA, GURE ESKUBIDEAK

Hezkuntza,
haurren eskubideak
eta **klima-aldaketa**

© UNICEF/UN056164/Sokhin



Ingurumen osasungarri bat izateko dugun eskubideak mugitzen gaitu!



Azaroaren 20a haurren eskubideak guztiok ospatzen ditugun eguna da: ezagutzarako, konpromisorako eta ekintzarako eguna da. Ikasturte honetan, egun hori oso une egokia da jakinarazteko klima-aldaketa hurrei dagokien gaia dela, eta hurrek eta nerabeek asko dutela esateko eta egiteko arazo horren inguruan. Lehenengo

hiruhilekoan ikasgela guztiarentzat zereginen koaderno bat sortzera gonbidatzen zaituztegu, ingurumenaren aldeko helburu bateratu bat ezar dezazuen partaide bakoitzaren konpromisoekin eta xedeekin. Deskargatu hemen zure zereginen koaderno pertsonalizatua: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

#1001ProyectosXelPlaneta

AZA20
HAURREN EGUNA



© UNICEF/UN062277/Sokhin

Hezkuntza, haurren eskubideak eta klima-aldaketa

Baliteke hezkuntzan lan egiteko prestatzen ari zinenen inoiz pentsatu ez izana klima-aldaketaren aurka borroka egitea izango litzatekeela zure helburuetako bat. Gaia interesgarria iruditzen bazitzaizun ere, beharbada ez zenuen haurrekin eta haien eskubideekin lotu. Ba, orain, kausa honi egiten diozun ekarpena ordezkatzeko eta geroratzeko da. Eta hori erakusteko, gida honetan, ideia eta proposamen batzuk eskaintzen dizkizugu. Bide honetan guri laguntzea nahi genuke eta zure ikastetxearekin edo ikasgelarekin Haurren Egunean planetaren aldeko mobilizazio handi batean parte hartzea. Elkartu zaitez!

Hezkuntza funtsezko elementua da klima-aldaketari erantzuteko: ezinbesteko zeregina betetzen du haur bakoitzak etorkizun jasangarri bat itxuratzeko beharrezko **ezagutzak, trebetasunak, jarrerak, gaitasunak eta balioak** beregatzeko. Klima-aldaketaren, ingurumenaren eta garapen iraunkorraren inguruan hezteko zientzietako eskoletatik harago doa eta gaitz egiten du ikasgelaren eremua: **Hezkuntza-sistemaren osagai guztietan du eragina, zeharkakoa da curriculumarekiko eta bizialdi osoa irautean duen ikaskuntza-eredu bat sustatzea dakar berekin.** Gainera, ikaskuntza-metodologiak proposatzen ditu, pentsamendu kritikoa, arazoak ebazteko trebetasunak, eta tes-tuinguru aldatzeko gertaerak aurreratzeko gaitasunak sustatzeko eta gertaera horien inguruan ekintzak elkarrekin aurrera eramateko.

Gainera, betebeharrak etikoak dira ingurumenaren eta haurren eskubideen arteko loturaz jabetuta hezteko. Klima-aldaketa **inpaktu neurrigabea izaten ari da haurren eta nerabeengan eta bidegabekia da bereziki haurrentzat**, arazoan erantzukizun gutxi dutenak izanik, bere ondorioak gehien sufrituko dituztenak baitira, orain eta gero.

Helduok haurren alde zer egiten dugun, eta zenbateraino erakusten diegun beren kabuz ekiten, horren arabera izango da haien oraina eta geroa. 18 urte barru, gaur jaioetako haur bat pertsona heldua izango da, erantzukizun osoa izango duena ingurumenaren gainean hartzen dituen erabakietan kontsumitzaile, langile, lider, boto-emaketa, politikari edo izen handiko pertsona publiko gisa. **Hezitzaile garen aldetik, aukera dugu haiei ezagutza eskaintzeko, haien jarrera kritiko eta arduratsu bat inspiratzeko, eta haien gaitasunak garatzen bultzatzeko, herritar aktiboak eta konprometitua izatea ahalbidetuko dietenak.**

Gida honetan ideia batzuk laburbiltzen dira, zehatzak izan gabe, **klima-aldaketari haurren eskubideetatik heldu nahi dioten ikastetxeentzat eta irakasleentzat inspirazio-iturri izan daitezkeenak, ikasleentzat partaidetza eta erantzukizuna bultzatuz**, bai beren gertuko ingurunean (ikastetxea, auzoa, udalerria...) bai arazoaren hedadura globalari dagokionez.

Kontzeptuak proposatzen dira, etapa bakoitzean zer landu daitekeen kontuan hartuta, baita **ikaskuntza-helburuak** ere, hezkuntza-maila bakoitzera egokituak. Horietako batzuk oso espezifikoak dira, klima-aldaketari buruzkoak, eta beste batzuk ikaskuntza orokorraren ingurukoak, beharrezkoak ingurumenaren eta haurren eskubideen kontzientizazioaren aurrean gaitasunak eta erantzukizunak berenganatzeko eta horien inguruan erabakiak hartzeko.

JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

HAUR HEZKUNTZA

Klima-aldaketa haurrei dagokien gaia al da? Inolako zalantzarik gabe: mundu osoan, **haur txikienak dira kalteberenak klima-aldaketaren ondorioez ari garenean**: bero- eta hotz-boladak, hondamendi naturalak, lehortea... Gure erantzukizuna da haiek heztea gertaera horien aurrean prest egon daitezen. Hala ere, ez litzateke eraginkorra izango haurrei klima-aldaketa azaltzea, adin jakin batera iritsi aurretik oso zaila baita ulertzea zergatik atmosferak (ikusirik ezin dugun gasen geruza bat) izan dezakeen hainbesteko eragina gure bizitzetan. **Haur txikien aurreneko pausoak eman ditzakete ingurumen osasungarri baten alde jokatzeko duten eskubidea defendatzen**, hauen bitartez: naturaren balioaz jabetzea, arriskuen aurrean defendatzea eta bizikidetzat. Lurra bero da eta lagundu egin behar diogu!

GARATZEKO IDEIAK

- Gure etxea eta izaki bizidun guztiena da Lurra.
- Ingurunea eta natura zaindu behar ditugu, gure etxea eta gure gauzak zaintzen ditugun bezala.
- Haizea, euria, elurra, eguzkia... beharrezkoak dira eta baita dibertigarriak ere, baina haietatik babesten jakin behar dugu.
- Gure buruak babesten ikasten badugu, gehiago gozatu ahal izango dugu naturaz.
- Naturako baliabideak mugatuak dira eta zaindu egin behar ditugu.
- Adin txikikoa izateak ez du esan nahi planetaren alde zerbait egin ezin daiteke.

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- Babesa
- Bizikidetzat
- Zaintza
- Natura
- Errespetua
- Ingurunea
- Autokonfiantza

Bizialdi osoko ikaskuntzak

Oraindik goizegi bada ere klimaren alderdi konplexuak ulertzeko edo ekintzak planifikatu ahal izateko klima-aldaketa eteteari begira, Haur Hezkuntzan ikaskuntzen oinarriak finkatu daitezke, haurrei aukera emango dienak ingurune naturalaz jabetzen diren eta arduraz jokatzeko duten herritar gisa garatzeko.





CCCO Alexey Ruban

Hiru txerrikumeak eta haize guztiz gaiztoa

"Haizeak eman eta eman... eta eraitsi zuen haien etxea". Batzuetan, ipuin klasikoek berriro interpretatzeko aukera ematen digute txikienekin gaur-gaurko gaiei heltzeko. Adibidez, Hiru txerrikumeak ipuina kontatu ahal izango diegu hondamendien aurrean prest egoten ikasteak duen garrantzia nabarmentzeko.

Deskargatu hemen ipuina eta dagokion unitate didaktikoa: www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/hiru-txerrikumeak-haize-bolada



AZA.20

#1001ProyectosXelPlaneta

Gainera, ipuinak inspirazio-iturritzat hartuta ekintza-plan bat sortu dezakegu, gure buruak babesten eta haurren eskubideekin eta klimarekin hartua dugun konpromisoa Haurren Egunean (azaroak 20) ospatzen lagunduko diguna. Guztion artean planetaren aldeko 1.001 proiektu baino gehiago bultzatu ditzakegu! Deskargatu hemen proiektugida eta zereginen koadernoak: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

LEHEN HEZKUNTZA

Klima-aldaketari buruzko hezkuntza-programek aurre egin behar izaten dioten zailtasun nagusietako bat hau da, **urruneko arazo bat balitz bezala ikusten dela**, beste herrialde batzuetan gertatzen den arazo bat, beste pertsona batzuei eragiten dien arazo bat, eta **ahalmen handiago duen jendearen erantzukizuna** dela pentsatzea. Garrantzizkoa da, adin jakin batetik aurrera, gure ikasleek ulertu ahal izatea klimak sistema konplexu baten antzera jokatzeko duela, eta bere aldaketak arazo desberdinen emaitza direla, ez dituzte erantzule bakarrak, beren ondorioak ez dira erabat antzemangarriak eta zuzenean edo zeharka izan dezakete gudan eragina. Garai egokia da hau planteatzeko **klima-aldaketaren eta gure bizi-estiloaren arteko harremanak**, ikuspegi bikoitz batetik: nola eragiten duten gure kontsumo-ereduek berotze globalean eta noraino behartzen gaituen klima-aldaketak gure ohiturak aldatzera.

GARATZEKO IDEIAK

- Leku jakin bateko klima sistema klimatikoak sorrarazitakoa da, sistema konplexua, dinamikoa eta globala delarik.
- Klima eta eguraldia lotuta dauden bi kontzeptu dira, baina desberdinak, eta garrantzi handia du haiek bereizten jakiteak.
- Kliman gertatzen diren aldaketek eragin nabarmena izan dezakete gure bizimoduan: ura eta janaria eskuragarri izatea zailtzen dute, gaixotasunak zabaltzen dituzte, lekualdatzera behartzen gaituzte edo lan egiteko ditugun aukerak mugatzen dituzte.
- Munduan, dagoeneko, gehiago dira klimatik ihesitako errefuxiatuak gerratik ihesitakoak baino.
- Pertsona eta kolektibo kalteberenek (haurrak, horien artean) gehiago sufritzen dituzte klima-aldaketaren ondorioak.
- Klima-aldaketaren aurrean, bi estrategia har ditzakegu: arintze-estrategia eta egokitze-estrategia.
- Gure kontsumo-ohiturek, erosketek, elikatze moduak, garraioak edo energiaren aurrezpenak, besteak beste, eragina dute negutegi efektuko gasen emisioan, eta arintze-estrategietan barneratzen dira.
- Gure ingurunean berotze globalaren ondorioak aintzat hartzen eta haiei aurre egiten ikasten dugun neurrian egokitu ahal izango gara klima-aldaketara. Hondamendi naturalen aurrean gure buruak nola babestu jakiteko eskubidea dugu.



FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- | | |
|---------------------|---------------------|
| • Interdependentzia | • Prebentzioa |
| • Arazoak ebaztea | • Kontrola |
| • Inpaktua | • Aukeratzea |
| • Babesa | • Erresilientzia |
| • Bizikidetzatza | • Egokitzea |
| • Eboluzioa | • Erabakiak hartzea |
| • Interesak | • Ondorioak |
| • Aurreikuspena | • Iraunkortasuna |

- Datuak eta informazio-iturri egokiak erabiltzearen garrantzia.
- Klima-aldaketaren oinarritzko kontzeptuak eta ingurumena zaintzekoak.
- Baliabide naturalen garrantzia gure eguneroko bizitzarako eta ekonomiarako.
- Gure eguneroko inguruneak arriskuak nola antzeman eta saihestu eta oinarritzko prestaketa gure ingurunean gerta daitezkeen hondamendietarako (lehortea, uholdea, bero-boladak...)
- Oraingo ekintzen faktore historikoak eta etorkizuneko ondorioak gudan, besterengan eta gure tokiko ingurunean.
- Oinarritzko ziklo ekologikoak (uraren zikloa, mantengaien zikloa...)
- Arriskuen, mehatxuen eta kalteberatasunen arteko lotura.
- Arau sozialak eta taldeen portaera arrisku-faktore gisa baita babes-faktore gisa ere.

EZAGUTZAK

Zer ikas dezakegu klima-aldaketatik?



JARRERAK


- Tokiko ingurumenaz kezkatzea eta berau balioestea.
- Zirkunstantzia eta iritzi desberdinetako pertsonak errespetatzea eta haiekiko enpatia izatea.
- Ingurunearen tokiko ezagutza eta bertara izandako egokitzapen kulturalak balioestea.
- Nork bere eta besteen eskubideez eta erantzukizunez jabetzea, ingurumena babestean eta arriskuak murriztean.
- Ingurumen-baliabideak erabiltzean arduratsuak izatea.

GAITASUNAK

- Tokiko ingurumenarekin harmonian bizitzeari eta arriskuen prebentzioari buruz jarrera irekia eta errespetuzkoa erakutsiz hitz egitea.
- Normalean erabili ohi ditugun tokiko baliabide naturalak eta haien erabilerak identifikatzea (lehengaiak, adibidez).
- Eguneroko praktikak berrikustea eta aldaketak abian jartzea ingurumena hobeto zaintzeko.
- Beldurra, oinazea eta galera aitortu eta horiei heltzeko gaitasuna.
- Laguntza bilatzea behar denean.
- Eragileen, ondorioen eta loturen artean bereiztea.

Zer egin dezaket nik?

Gugan eragina duten arazoetarako irtenbideak gure eskuetan ez daudela ikustea hain da frustragarria, ezen bai arazoaz **bai bere konponbideaz ez arduratzea** berekin ekar dezakeen. Horregatik, Lehen Hezkuntzan garrantzizkoa da hezkuntza-ahaleginak arazoaren alderdi jakin batzuetan oinarritzea, benetako eragina duenez gero, haurrek landu edota beste batzuek lortu ahal izango dituzten horietan, haien eragina-ri esker. Horrek motibatuko ditu ikasleak gero eta proiektu konplexuagoetan aurrera egiten jarraitzea, hazi ahala konpromiso handiagoa eskatuko dieten horietan.



Gogoeta-prozesu honen gakoa hauxe da, ikustea gure ekintzek eragina izateko ahalmen handiagoa **dutela taldean lan egiten dugunean eta harreman-sare batean oinarritzen garenean**. Ikasle bakoitzak bere ekintzen eraginaren mapa errealista bat egin ahal izateko erabilgarria izan daiteke irudian agertzen den bezalako eragin-mapa bat marraztea, jakiteko:

- "Zer egin dezaket nik": adibidez, nire koadernoetako papera birziklatu, loreontzi bat zaindu edo pankarta bat marraztu.
- "Nortzuk lagundu ahal izango didate edo nortzuk konbentzitu ditzaket zuzenean": adibidez, nire irakasleari eskatu ahal izango diot beste haur batzuk animatzeko beren koadernoak birziklatzera, nire aitari eskatu ahal izango diot ni haztegi batera eramateko edo nire ahizpa/arreba konbentzitzeko dut pankarta marrazten laguntzeko.
- "Noraino zabaldu dezaket nire eragina": nire irakasleak lagundu ahal izango dit lortzen ikastetxeak plan bati hasiera ematea koadernoak birziklatzeko edo nire ahizpak/arrebak konbentzitu ditzake bere lagunak nire kanpainan laguntzeko.
- "Non izango zait zaila zerbait lortzea": oso zaila da ezagutzen ez ditugun horiengana iristea eta, beraz, gure helburuak betetzea lortzeko errealistak izan behar dugu. Baina hori ez da eragozpide gure eragina zabaltzeko moduak imajinatzeko: Egingo al dugu podcast bat beste ikastetxe batzuek entzun ahal izango dutena? Idatziko al diogu gutun bat udalari? Galdetuko al diogu gure amari Twitterren eskaera bat egiteko?



AZA.20

#1001ProyectosXelPlaneta

Sartu tartean ikaskide guztiak ekintza-plan batean eta ospatu Haurren Egunean (azaroak 20) zuen konpromisoa haurren eskubideekin eta klimarekin. Guztion artean planetaren aldeko 1.001 proiektu baino gehiago bultza ditzakegu! Deskargatu hemen proiektu-gida eta zereginen koadernoak: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

BIGARREN HEZKUNTZA

Nerabezaroan aurrerapen nabarmena izaten da garapen etikoari eta moralari lotutako gaitasunetan, funtsezkoa izanik klima-aldaketa bezalako gertakariak gizarteak uler ditzan. Hezkuntza-etapa honetan, pauso bat eman dezakete ikasleek ingurumenaren zaintzan banaka eguneroko erantzukizunak bere gain hartzetik **hiritar gisa duten eragina definitzera ikuspegi demokratiko eta partaidetzazko batekin**. Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta ondorengo etapetan, gure ikasleek lehen guztiz eskueran ez zituzten ekintzarako aukera batzuk aztertu ahal izango dituzte: ikaskuntza/zerbitzua, ekintzailetza soziala, elkartegintza eta partaidetza politikoa.

GARATZEKO IDEIAK

- Klima-aldaketa zientifikoki finkatuta dagoen gai bat da, baina polemika piztu duen gaia ideologietan eta hedabideetan. Ikuspegi kritikoa eta informatua lortzeko garrantzizkoa da zientziaren motibazioen eta metodoen eta eragin-talde desberdinen artean bereizi ahal izatea.
- Klima-aldaketa batik bat klimaren arloko zientzialariek (klimatologoek) aztertzen duten gai bat da; eragina du, ordea, gizartean, kulturen, ekonomian, legean, osasunean eta giza eskubideetan, beste espezialista batzuek aztertzen dituzten arloetan, alegia. Klima-aldaketaren arazoak izan ditzakeen soluzioak diziplina anitzetatik azter daitezke.
- Kliman izaten diren aldaketek modu desberdinetan eragiten diete pertsona, komunitate eta interes-talde desberdinei, eta horrek zaildu egin dezake akordioak lortzea eta soluzio bateratuak abian jartzea.
- Pertsonak gizarte-testuinguru batean jarduten dugu, modu iraunkor nahiz iraunezin batean ingurune naturalera egokitzen laguntzen digun testuinguru batean. Iraunkortasuna lortzeko beharrezkoa izan daiteke aldaketa kulturalak eta teknologikoak bultzatzea.
- Dimentsio desberdinak kontuan hartu behar ditugu, berotze globalari konponbideak eman nahi izaten dizkiogunean, betiere elkarrekintzan: arazoari logikaz edo arrazoibidez heltzeaz gain, beste dimentsio batzuk ere kontuan hartu behar dira (legalak, teknikoak, ekonomikoak, kulturalak, politikoak, emozionalak...).
- Haurrak eta nerabeak ez dira berotze globalaren oraingo mailaren erantzule zuzenak, baina haiengan eragina dute bere ondorioek eta, aurreko belaunaldien laguntzarekin, konponbideak aurkitu behar dituzte euren etorkizuna jasagarria izan dadin, partaidetzarako eta ingurumen osasungarri baterako dituzten eskubideetako bat delako.

FUNTSEZKO KONTZEPTUAK

- Erabakiak hartzea
- Irizpidea
- Eztabaida
- Justizia Soziala
- Interdependentzia
- Bitartekaritza
- Ekintza
- Pluralismoa
- Globalizazioa
- Sistemak
- Ondorioa
- Prozesuak
- Negoziazioa
- Egokitzea
- Hornikuntza
- Iraunkortasuna

CC0 Jason Rosewell





© UNICEF/UN028841/Tremeau



Zer ikas dezakegu klima-aldaketatik?

Bigarren Hezkuntzan eta ondorengo etapetan gauza asko ikas daitezke klima-aldaketatik, zientzietako eskoletatik harago. Berotze globalari aurre egiteko beharrezko soluzio eta egokitzapen asko ez dagozkio zehazki zientziaren eremuari, teknologiari, hezkuntzari, ekonomiari, industriari edo aldaketa sozialari baizik. **Ikasleek, haien orientazio bokazionala edozein izanik ere, beren garapen ekonomikoari, pertsonalari, profesionalari edo herritar gisa izaten ari diren garapenari gehitu ahal izango dizkiete ikaskuntza, jarrera eta gaitasun hauek.**

EZAGUTZAK

- Nola identifikatu eta aztertu informazio egokia: zein irizpidek adierazten dute informazio jakin bat fidagarria dela, nola bereizi kalitateko dibulgazio zientifikoa eta zein baldintza bete behar ditu metodo zientifikoak.
- Klima-aldaketara egokitzearen eta arintzearen kontzeptuak.
- Tokiko ziklo ekologikoak (ura, mantenugaiak, adibidez), tokiko baliabideak iraunarazteko beharrezkoak; ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren beste faktore batzuk kontuan hartuta elkarri eragiten dien modua.
- Kontsumoko produktuen bizi-zikloa eta ingurumenaren zaintzari lotutako kontzeptuak (berrerabiltzea, birziklatzea eta ingurumeneko baliabideen kontserbazioa barne).
- Berotze globalean inplikaturik dauden eta gertakari horrek eragin dieten eragile desberdinen arteko interes-gatazkak (industria, elikagaien industria, osasun-sistema, kontsumitzaileak, turismoa, errefuxiatu klimatikoak, nekazari txikiak, sektore publikoa...).
- Tokiko eta munduko ekintzen arteko elkarrenergina eta horren ondorio posibleak klima-aldaketari dagokionez.
- Hondamendi naturalen aurrean prestatzeko kontzeptuak eta nola zehaztu tokiko arriskuak, mehatxuak eta kalteberatasunak eta horien arteko loturak.
- Arau sozialek eta portaera kolektiboek jokabide arrisksuetan eta babes-jokabideetan duten eragina.

JARRERAK

- Ingurumenaren jasagarritasunaz eta hondamendien arriskuaz kezkatzea.
- Gure eskubideak eta erantzukizunak ezagutzea, baita gainerakoenak ere, talde indigenenak eta tokiko komunitateenak barne, ingurumenaren kudeaketan eta hondamendien arriskuaren murrizketan.
- Nork bere erantzukizuna bere gain hartzea ingurumeneko baliabideak erabiltzean eta erantzukizun partekatuak aldarrikatzea: sozialak, ekonomikoak eta politikoak.
- Kontsumo ondasunak erosi aurretik ingurumenean eta gizartean izango duten eragina kontuan hartzea.
- Ingurumenari, ekonomiari eta gizarteari lotutako gaien konplexutasuna eta elkarreraginak aintzat hartzea.

GAITASUNAK

- Tokiko ingurumenarekin harmonian bizitzeari eta ingurumenari lotutako arriskuak murrizteari buruz jarrera ireki eta errespetuzko batez hitz egitea.
- Ingurumenaren zaintzan laguntzeko, klima-aldaketari egokitzeko eta hondamendien arriskua arindu eta murrizteko moduen adibideak ematea.
- Tokiko baliabide naturalak identifikatzea eta iraunkortasunez erabiltzea.
- Toki-mailan jardutea ingurumena zaintzeko eta arriskua murrizteko.
- Herritar aktiboen eskubideak eta erantzukizunak baliatzea helburu sozial positiboak lortzeko.
- Erresistentziei, arriskuari, beldurrari, oinazei eta galerari eraginkortasunez aurre egitea.
- Laguntza-sareak sortu eta mantentzeko gaitasuna.

PROIEKTU ARRAKASTATSUAK

Klima-aldaketari lotutako hezkuntza-proiektu batek arrakasta izateko aukera handiagoa du haurren eta gazteen partaidetzaren oinarritik abiatzen bada: ikasleek planifikatua, garatua eta abian jarria, hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerakoekin elkarlanean. Proiektuaren hezkuntza-helburuak lortzeko (ingurumenarentzat eta gizartearentzat programatutako onurez gain), beharrezkoa da ikasleek proiektuaren jabe egitea, "proiektua beraiena" egitea, alegia. Haiei bidea errazteko gaudenez, garrantzirikotzat jotzen dituzten gaiak identifikatzen lagundu ahal izango diegu, baita funtzionaltuko dutela uste duten soluzioak planteatzen eta helmenean dituzten ekintza-proposamenetan pentsatzen. Eskuinaldean, eskema labur bat proposatzen dizugu ekintzak diseinatzeko.

1. PAUSOA: Gehiago jakitea klima-aldaketari eta eremu desberdinetan duen eraginari buruz (ingurumenean, gizartean, ekonomian, osasunean, lanean, migrazioetan...).

2. PAUSOA: Gure ingurunean landu nahi dugun arazo zehatza identifikatzea.

3. PAUSOA: Gure ekintza planifikatzea.

4. PAUSOA: Ekitea.

5. PAUSOA: Gure proiektua komunikatzea eta bere eragina zabaltzea, komunitateko beste kide batzuk edo tokiko administrazioa tartean sartu ahal izango ote ditugun pentsatuz.

6. PAUSOA: Geureganatu ditugu ikasbideen inguruan gogoea egitea, ebaluatzea, aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.

7. PAUSOA: Hurrengo pausoak definitzea eta, beharrezkoa bada, zikloa berriro hastea proiektu berri batekin.



© UNICEF/UNI118526/Noorani



AZA.20

#1001ProyectosXelPlaneta

Sartu tartean ikaskide guztiak ekintza-plan batean eta ospatu Haurren Egunean (azaroak 20) zuen konpromisoa haurren eskubideekin eta klimarekin. Guztion artean planetaren aldeko 1.001 proiektu baino gehiago bultzatzeko! Deskargatu hemen proiektu-gida eta zereginen koadernoak: www.unicef.es/eus/educa/1001proiektu

Ezagutzatik ekintzara

Klima-aldaketa arintzea eta egokitzea portaera-aldaketan oinarritutako estrategiak dira: helburua bada negutegi efektuko gasen emisioa murriztea (arintzea) edota gure nahia bada berotze globalaren ondorioak gainditzea (egokitzea), beharrezkoa da azturak, ohiturak eta jarduteko moduak aldatzea. Zer zeregin betetzen du hezkuntzak jokabide-aldaketa horretan?

Herri garatu gehienetan eta garatzeko bidean dauden gero eta herrialde gehiagotan, **curriculum ofizialean** sartzen da klima-aldaketa, batik bat natur zientziekin eta ingurunearen ezagutzarekin lotutako ikasgaien barruan. Azken hamarkadetan **hezkuntza-material ugari** argitaratu da eta osatua eta askotarikoa da haurrentzat eta gazteentzat egokitutako informazio-eskaintza. Hala eta guztiz ere, zenbait herrialdetan egindako azterlanek ohartarazten dutenez, gainbeheran daude ingurumenaren aldeko jarrerak gazteenengan. Klima-aldaketari buruzko hezkuntza-programa

askok arazoaren kontzientzia areagotzea dute helburu, gauzak aldatzeko ikasleak motibatuko dituelakoan. Dena den, **arazo jakin bati buruz gehiago jakiteak ez dakar berez portaera-aldaketa bat**, batik bat behar diren neurriak hartzeko konfiantzarik, gaitasunik edo borondaterik ez badugu. Gaitzea, ahaldundzea eta erantzukizunak gure gain hartzea ezinbesteko hezkuntza-elementuak dira gazteenek uler dezaten nola eragiten dien klima-aldaketak, zehaztu dezaten euren zeregina arazoaren konponbidean eta tartean sar daitezzen berotze globalaren aurkako ekintzan herritar aktibo gisa.

INGURUMEN HEZKUNTZAKO PROGRAMA ARRAKASTATSUAK

9. Lortutako portaera-aldaketa ebaluatzen dute eta erdietsitako arrakastak ospatzen dituzte.

1. Portaera-aldaketa espezifikoetan eta lorgarrietan oinarritzen dira.

2. Ekintzak planifikatzera animatzen dute eta ahaldundzea errazten dute.

8. Proposamenak eta emaitzak komunitateetan eta sare sozialetan hedatzera animatzen dute.

3. Oraingo portaerak eta sistemak ebaluatu eta haiei aurre egiten diete.

7. Ekiteko espazio publiko bat sustatzen dute.

4. Ekintzarako dauden oztopoak identifikatu eta aztertzen dituzte.

6. Naturarekiko lotura sustatzen dute.

5. Garrantzizko exekuzio-trebetasunak garatu eta gauzatzen dituzte.

Hauek izango lirateke, adibidez, hobekuntzaren alderdi batzuk hezkuntzan:

- Curriculumean zeharkakotasuna bilatzea.
- Trebetasun transferigarriak lortzen enfasia jartzea.
- Ikasleek beren gertuko ingurunea hobetzen parte hartzeko aukera izatea edo .
- Haurrak eta nerabeak soluzioaren parte izatea ahalbidetuko duten proiektuak diseinatzea.

Zenbait kasutan baliagarria izan daiteke estrategia zehatzak nabarmentzea; beste batzuetan egokia izan daiteke oso ikuspegi globala izatea eta, beste batzuetan, puntualki ekitea.



Hezkuntza-komunitate osoaren lana

Garapen iraunkorrerako hezkuntzak haurren eskubideen eta herritartasun globalaren ikuspegia bereganatzean beharrezkoa da ahaleginak egitea ikastetxe guztiak tartean sartzeko eta zenbait alderdi –eskola-curriculum, metodologia, antolamendua eta komunitatearen partaidetza– bat egiteko.

1. IKASKUNTZA: Ingurumenaren babesari eta garapen iraunkorraren sustapenari lotutako ezagutzen, jarreraren eta gaitasunen garapena bultzatzea.

2. METODOLOGIAK: Ikaskuntza-metodologiak proposatzea, ondokoak sustatuko dituztenak: pentsamendu kritikoa, arazoak ebazteko trebetasunen garapena eta ingurumen- eta giza ekosistemei eragiten dieten egoerak aurreikusteko gaitasuna, eta horien gainean prebentzioan eta elkarlanean oinarrituta ekitea.

3. INTERDEPENDENTZIA: Klima-aldaketak planteatutako erronka desberdinen konplexutasunen eta loturen ulermena sustatzea, bere eragileei eta ondorioei buruzko ikaskuntza barnean hartuta, baita helmenean ditugun erantzun posibleak

ere, zeharkako eta diziiplina anitzeko ikuspegia eskainiz.

4. ESKUBIDEAK: Eskubideetarako hezkuntzaren ikuspegia sustatzea, klima-aldaketari lotutako gizartearen eta giza eskubideen gaien ulermena bultzatuz, eta haurren eskubideetan arreta berezia jarritz.

5. AURRE EGITEA: Klima-aldaketari erantzuteko eta egokitzeko gaitasunak garatzea, besteren artean, erabaki informatuak hartzea, hondamendi naturalei aurre egitea, eta arriskuak gutxitzeko estrategiak garatzea.

6. ARINTZEA: Ekintza arduratsuak mobilizatzea, negutegi efektuko gasen emisioak murrizten lagunduko dutenak bizi-estilo jasangarriagoen bitartez.

7. HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEA: Parte hartzeko guneak eta aukerak sortzea, ikasleei aukera emango dietenak herritar diren aldetik klima-aldaketaren gainean ekiteko.

8. PROIEKTUAK: Eskolatik sustatzea haurren eta gazteen partaidetza ingurunea hobetzeko proiektuetan, adibidez, ikaskuntza/zerbitzuaren bitartez.

9. AGENDA 21: Ikastetxe jasangarrien ikuspegia garatzea, ikasleen partaidetzarekin eta helburutzat izango duena ikastetxeak berak ingurumenean duen eragina murriztea, komunitatearen gizarte-, geografia- eta ekonomia-testuingurura egokitutako neurriekin, eta tokiko Agenda 21ekin lotuz.



CC By-SA-4.0 Lalobiozar

Klima-aldaketa barnean hartzea Eskubide Hezkuntzako proiektu batean


Klima-aldaketaren gaineko ekintza-programa batek, ikastetxea bere osotasunean tartean sartuko duenak, Haurren Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren lau eremuei heltzen die: ezagutza, haurren babesa, partaidetza eta eskola-giroa. Ikastetxe bakoitzaren errealitatetik eta bere testuingurutik abiatuta lor daiteke.

- Klima-aldaketari buruzko batzorde bat eratzea, ikasleen partaidetzarekin.
- Ingurumenaren ebaluazio bat egitea (eraikinaren isolamendu termikoa, eraginkortasun energetikoa, paper-kontsumoa, ohitura positiboak...)
- Ekintza-plan bat prestatzea: helburu espezifiko, neurgarri, irisgarri eta errealistekin.
- Plana gainbegiratzea eta ebaluatzea.
- Hezkuntza-komunitatea informatzea eta tartean sartzeara.

Informatu zaitez hemen eskubide-hezkuntzako proiektu bat nola hasi jakin nahi baduzu: www.unicef.es/eus/educa


Zer adinetan?

Arazoei konponbideren bat eman nahian sor daitekeen frustrazioaren ohiko eragileetako bat da arazo horiek konpondu behar dituztenen gaitasunetara haurrak egokituta ez egotea. Haur batentzat konplexua den eta bere helmenetik kanpo dagoen zerbait, errazegia izan daiteke nerabe batentzat, eta horrek motibazioa galtzea ekar dezake berekin. Proiektuak gure ikasleen gaitasunetara eta garapenera egokitzea da arrakasta lortzeko aurreneko pausoa.



Ilustr. Selim: Climate Change and Environmental Education-etik egokitua. UNICEF, New York, 2012

Baumert, K.A.; Herzog; Pershing, J.: Navigating the numbers: Greenhouse gas data and International Climate Policy-tik egokitua. World Resources Institute, 2005.



Nondik datoz negutegi efektuko gasak?

Tradizioz, negutegi efektuko gas gehien sortzen duten herrialdeei buruzko informazioa partekatua izan ohi da, baina datu horiek nahastea eragin dezakete, zenbait herrialdetako industrializazioa, baso-soiltzea edo nekazaritzaren hedapena baliagarriak direlako beste herrialde batzuk hornitzeko lehengaien eta produktuen esportazioaren bitartez. Gainera, gure herrialdea negutegi efektuko gasen isurle handi bat dela jakiteak ez digu laguntzen arazoa konpontzen gas horiek zerk sortzen dituen ez badakigu.

Pertsona bakoitzari berotze globalean gizakiak duen eraginaz gehiago jabetzeko aukera emango dion ikuspegi bat haxe da, negutegi efektuko gasen emisioak eta ekoizpen-sektoreak lotzen dituenen. **Ikasgelan eragina izango duten proiektuak diseinatu ahal izateko funtsezkoa da jakitea zer giza jarduerak sortzen dituzten negutegi efektuko gasak.** Zer informazio behar dugu emisio horien kudeaketari buruz gure ingurunean? Horietatik zeintzuetan dute eragina gure kontsumo-ereduek? Zeintzuk ezin ditugu saihestu? Zeintzuetan izan dezakegu eragina beste pertsona batzuekin elkartzen bagara?

Curriculum-integrazioa

Zientzietako ikasgaietan klima-aldaketaren azterlanean oinarritutako ikuspegia baliagarria da gertakari hori, bere eragileak eta ingurumenean dituen ondorioak ulertzeko, baina ez du laguntzen berez gure ikasleak gaitzen berotze globalak sorrarazitako arazoei aurre egiteko beharrezko egokitzapen- eta arintze-estrategiak berenganatu ditzaten. Klima-aldaketa beste ikasgai batzuetatik azter daiteke eta lagungarria izan daiteke gure ikasleen gaitasun globalak garatzeko.





Funtseko galderak

Galdera hauek lagungarriak izango zaizkizu klima-aldaketari lotutako Garapenerako Hezkuntzako funtsezko kontzeptuak garatzeko.

Justizia soziala

- Bidezkoa al da klima-aldaketak pertsona kalteberenei erasatea?
- Bidezkoa al da guretzat aurreko belaunaldiak utzi diguten ingurumen-legatua? Bidezkoa izango ote da guk utziko dugun legatua?
- Nola saihestu dezakegu belaunaldi arteko bidegabekeria betiketzea?
- Nola eragiten die klima-aldaketak giza eskubideei?
- Bidezkoa al da errefuxiatu klimatikoak egotea?

Irudiak eta pertzepzioak

- Zer irudi dugu klima-aldaketa eteteko lanean diharduten pertsonen eta ekologisten buruz? Irudi hori bera al du gizarte osoak?
- Zer irudi dugu klima-aldaketa edo berau eteteko aukera ukatzen duten pertsonen buruz?
- Zeintzuk dira “eguraldi onari” edo “eguraldi txarrari” buruz ditugun estereotipoak? Zertan oinarritzen dira?

Interdependentzia

- Eragina al dute gudan beste herrialde batzuetako lehorteen edo uholdeen? Zertan?
- Zer eragin ekonomiko, sozial eta politiko izan ditzake klima-aldaketak?
- Zer eragin dute klima-aldaketan eredu ekonomikoek, gizartearen ohiturek eta erabaki politikoek?
- Zer eragin du baso-soiltzeak berotze globalean?

Aldaketa eta etorkizuna

- Nolakoa litzateke oraina klima-aldaketarik egongo ez balitz? Nabarituko al genuke desberdintasuna?
- Nolakoa litzateke mundua batez besteko tenperatura 2 gradu gorago egongo balitz? Eta 4 gradu igoko balitz? Nabarituko al genuke desberdintasuna?
- Nolakoa litzateke etorkizuna klima-aldaketa etetea lortuko bagenu?
- Zer egin dezakegu oraingo egoeratik abiatuta?
- Zeintzuk dira bururatzen zaizkizun etorkizun alternatiboak hartzen diren erabakien arabera?
- Nolakoa izango ote da nik munduan izango dudana eragina?

Gatazken ebazpena

- Pertsona eta interes-talde guztiak al daude ados klima-aldaketari dagokionez egin behar denari buruz?
- Zeintzuk dira zure ustez egoera honetan dauden interes-gatazkak?
- Uste duzu guztion onerako izango diren akordioetara al daitekeela iritsi? Nola egingo zenuke?

Klimari buruz gogoeta egiteko liburuak

Haur eta gazte literaturako hainbat liburuk eta nobelak azaltzen dute klima-aldaketa, edo garatzen dira berotze globalak edo hondamendi naturalak erasandako inguruneetan. Liburu horietako batzuek nola ekin erakusten digute, beste batzuek beren bizi-baliabideak arriskuan ikusten dituzten pertsonekin enpatizatzen dute, beste batzuek geure ohiturei buruz gogoeta egitera bultzatzen gaituzte edo gureak ez bezalako mundu batzuetara eramaten gaituzte, beharbada hain urrun ez dauden horietara.

Liburu horien bitartez, adin desberdinetako haurrek ikuspegi emozional batetik eta balioetan oinarritutako batetik uler dezakete arazo hau, jarrerak garatzeko funtsezkoa izanik ingurumena babesteari begira. Hemen, liburu-sorta bat aurki dezakezu eta zure iradokizunak adierazi:

[www.unicef.es/eus/educa /liburutegia/gazte-literatura-aldaketa-klimatika](http://www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/gazte-literatura-aldaketa-klimatika)



© UNICEF/UNI28338/Abramson

GEHIAGO JAKITEA

Gida hau UNICEFen eta beste erakunde batzuen argitalpen batzuetan oinarritu da. Garapen iraunkorrerako hezkuntzari, hondamendien prebentzioari, haurren eskubideei eta klima-aldaketari lotutako gaietan sakondu nahi baduzu, hemen deskargatu ditzakezu (batzuk ingelesez bakarrik daude eskuragarri): www.unicef.es/eus/educa/liburutegia/aldaketa-klimatika-argitalpenak-haurrak

TANTAZ TANTA!

Har ezazu parte lasterketetan:
eskatu hemen zure dortsala,
www.unicef.es/eus/educa/Nigerrera-ko-tantak

Eskerrik asko 2016-2017 ikasturtean tanta-lasterketa bat antolatu zuten ikastetxe guztiei! Ekarpen bakoitzak asko balio du, Nigerrera-ko Tanten kanpaina laguntzen ari baitzaio UNICEFi herrialde osoan edateko ura, saneamendua eta higiena izateko kanpainak abian jartzen:

Larrialdietan: Boko Haram-ek sorrarazitako eze-gonkortasun-egoeraren eta lehorte-engatik izaten ari den lekualdatuen krisiaren eraginez, UNICEF ahalegin berezia egiten ari da errefuxiatuen eta lekualdatuen kanpamenduak uraz, higieenez eta saneamenduz hornitzeko.

Ur-hornikuntza: Herrixketan putzuak instalatu izanari esker, Nigerrera-ko populazioaren % 58k eskueran dute edateko ura (2007ko % 47ren aldean).

Saneamendua eta higiena: Saneamendu-instalazioak eta higie-ne-hezkuntza funtsezkoak dira haurrentzat potentzialki hilkor-ak diren gaixotasunak zabaltzea saihesteko, baina oraindik populazioaren % 5ek bakarrik dituzte saneamendu-instalazioak eskueran.

unicef www.unicef.es/eus/educa

Ipini zure tanta!

**LASTERKETA SOLIDARIOA
NIGERRERAKO TANTAK**

#Nigerrera-koTantak

JOSÉ MANUEL CALDERÓN, SASKIBALOI-JOKALARIA

NON _____ NOIZ _____

HELBURUA: *Ura eta hezkuntza igerrera-ko*

unicef

235

Tanta bakoitzak axola du!

unicef.es/educa

BAZENEKIEN...?

Klima-aldaketa eta elikagaien segurtasuna

Afrikako herrialde gehienetan, elikaduraren eta tokiko ekonomiaren oinarria lehorreko laborantza da (Saharaz hegoaldeko Afrikan landutako lurren % 96 lehorrekoak dira). Horrek esan nahi du nekazaritzako ekoizpena eurien menpekoa dela. Nekazari txikiek lortuko ez badute beren uztak aurrera ateratzen klima-aldaketaren eraginez, landa-populazioa emigratzera behartuta egongo da, goseteak mehatxatuta.



© UNICEF/UN029176/Phelps

Haur bat artatxiki-soroetatik ibiltzen, Kadazaki-n (Zinder-eko eskualdea, Niger). Artatxikia, oso zereal elikagarria, Nigerreko elikaduraren oinarria da.

© UNICEF/ Badre Bahaji



Aïta, 8 urte:

Aïta Abakar, 8 urtekoa, Chad lakuaren ertzean bizi da. Lakuko uharteetako batean bizi zen lehen, baina ihes egin behar izan zuen Boko Haram-en terrorismoaren eraginez. "Nire uhartea, nire etxea eta nire aitaren kanoa, besterik ez dut ezagutzen. Nire etxetik alde egin nuen aurreneko aldia Boko Haram-ek gure herria eraso zuenean izan zen. Ez dakit egunen batean itzuliko naizen". Badaki Chad lakua, haren amonak bere adina zuenean Afrikako laugarren laku handiena zena, urritzen ari dela aspalditik jasaten ari den gehiegizko ustiapenagatik eta klima-aldaketagatik, baita desagertu egin litekeela ere. Galdetzen diotenean zer egin dezaketen haurrek arazo hori konpontzeko, oihu egiten du: "Ez da bidezkoa! Lagundu egin behar diguzue. Lakua betiko nahi dut"



LORTU AINTZATESPENA!

ERREFERENTE DIREN IKASTETXEAK ESKUBIDEETARAKO ETA HERRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZAN

Gero eta ikastetxe gehiago dira haurren eskubideekin konpromisoa hartua dutenak: haientzat, erabaki bakoitzean, programa bakoitzean eta ikasgela bakoitzean bizi behar dira eskubideak, eta inspirazio-iturria dira hezkuntza-komunitate osoarentzat.

Horregatik, ikastetxe horien zeregina aintzatestea erabaki dugu, baita beren eguneroko jarduna ahalbidetzen duten pertsonena ere, direna bezala identifikatuko dituen sari bat sortuz: erreferente bat haurren eskubideak eskola-bizitzan abiarazten. Zure ikastetxeak badu eskubideetarako hezkuntza-proiektu bat eta gustatuko litzazuke UNICEFen aintzatespena lortzea? Ezagutu itzazu aintzatespena dagoeneko lortu duten ikastetxeak eta informa zaitez nola aurkeztu zure ikastetxearen kandidatura datorren ikasturteko deialdira. Hemen aurkituko duzu informazioa: www.unicef.es/eus/educa/ikastetxe-erreferenteak

Ez ezazu ahaztu!

Hasierako mailako aintzatespena lortzeko beharrezkoa da irakasle-taldeak eskubideetarako hezkuntzan prestakuntza jaso izana. Informa zaitez hemen ikasturteetako datozen deialdiei buruz:

www.unicef.es/eus/educa/eskubideak-hezkuntza

Jar zaitez gurekin harremanetan

Edozein zalantza izanez gero edo edozein argibidetarako IHPn eskubideen ikuspegi bat abiarazteko prozesuari buruz, ikastetxearen autoebaluazioari buruz, aintzatespenei buruz edo irakasleentzako gidak doan jasotzeko, idatzi helbide honetara: educacion@unicef.es

ESKUBIDEETAN HEZTEN DUEN ESKOLA BATEK

- Lagundu egiten die ikasleei beren eskubideak ulertzen, erabiltzen, besterenak errespetatzen, eta eskubide horiek defendatzen eta sustatzen.
- Elkarlanean aritzen da ikastetxearen gertuko ingurunearekin –instituzioak, auzoa, udalerria– eskola barruan eta kanpoan bere ikasleentzako haurren babes-eremu bat lortzeko.
- Errespetuzko eta partaidetzazko giroa indartzen laguntzen du, ikastetxeko jardura guztiak aktiboki tartean sartzen dituen.
- Hezkuntza-komunitate aktibo eta solidario bat eraikitzen du, ikastetxean eta mundu osoan haurren garapenera osorik bideratua.

GOAZ AURRERA FREDO FOX!

Fredo Foxek, erreportari ausartak, oso bidaia berezia egin du, bere gertuko lagunetako batzuekin elkartzeko: Espainiako ikastetxe eta udalerrietako haurrak. Eta irratian ere elkarriketatu dute! *Siempre hay que ayudar* saioaren denboraldi berriak lagundu egiten digu gure ondoan ditugun aukeretako batzuk ikusten haurren eskubideen alde jarduteko. Ez da oso urruti bidaiatu behar besterengatik zerbait egiteko!

Kaixo! Fredo naiz, haurren eskubideen erreportaria eta superagentea. Askok gustatzen zait irakurtzea, angurria jatea eta parkean jolastea, baina batez ere, izugarri gustatzen zait mundu osoko haurrekin hitz egitea eta haien iritzia ezagutzea.

Badakizu haiek guztiek esaten didaten gauza bat?: Askok gustatzen zaiela gauzak egin ahal izatea besteei laguntzeko eta uste dutela inoiz ez garela txikiegiak handia den zerbait egiteko. Ados nago!

Gainera, batzuek kontatu didate kezkatuta daudela ingurumena gero eta kutsatuagoa dagoelako eta klima-aldaketak haiengan eta beste haur batzuegan izan dezakeen eraginagatik. Bazenekien ingurumen osasungarri bat izatea haur guztien eskubide bat dela?

Superagenteak garenez ingurumena babestea da gure zeregina. Ubuntu!

Fredo Foxen abenturen denboraldi hau edo aurrekoak ikusteko:
[www.unicef.es/eus/educa /
fredo-fox-abenturak](http://www.unicef.es/eus/educa/fredo-fox-abenturak)
Ez utzi ikusi gabe!

Edizioa

UNICEF Comité Español
www.unicef.es/eus/educa

Diseño gráfico

Rex Media SL

ISBN: 978-84-942273-7-0

Haurren eskubideei, garapen iraunkorrari eta herritartasun globalari buruzko hezkuntza-materialak, baliabideak eta jarduerak Eskubideetarako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzan UNICEF Espainiako Batzordeak egindako lanaren zati bat dira, eta aurretik Sareratu markaren eta enredate.org webgunearen pean argitaratu izan dira. Hemen erakutsitako gertakariak eta iritziek ez dute nahitaez adierazten UNICEFen ikuspegia.

Material hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin (AECID) sinatutako hitzarmenaren esparruan ekoiztu da: "Garapenarekiko eta haurren eskubideekiko gizartearen konpromisoa Espainiako hezkuntza-sistematik sustatzea". Argitalpen honen edukiak ez du nahitaez islatzen AECIDen iritzia.

UNICEF haur guztien eskubideak eta ongizatea sustatzen ditu egiten dugun guztian. Gure aliatuekin batera, 190 herrialde eta lurraldetan lan egiten dugu konpromiso hori ekintza bihurtzeko, gure ahaleginak haur kalteberenengana eta baztertuenengana iristen bereziki oinarrituz, haur guztien onurarako, leku guztietan.



Argitalpen hau Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivar 4.0 Internacional lizentzia baten pean sortua da, beste lizentzia-mota bat espresuki zehazten den edukietarako izan ezik.

EKINTZARAKO DATAK

Azaroaren 20az gain, badira beste egun batzuk eskola-egutegian haurren eskubideekin eta ingurumenarekin zerikusia duten edukiak eta jarduerak landu ahal izateko:

Urtarrilak 30: Bakearen Eguna

Martxoak 22: Uraren Eguna

Irailak 16: Ozono Geruza Zaintzeko Nazioarteko Eguna

Urriak 13: Hondamendiak Murrizteko Nazioarteko Eguna

Apirilak 22: Ama Lurraren Nazioarteko Eguna

Maiatzak 22: Dibertsitate Biologikoaren Nazioarteko Eguna

Ekainak 5: Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Ekainak 17: Desertifikazioaren eta Lehortearen aurkako Borrokaren Nazioarteko Eguna

www.unicef.es/eus/educa/nazioarteko-egunak



Zure udalerrian badago haurrek edota nerabeek parte hartzeko kontseilurik?

Gida honetako edukiak eta bertako jarduerak haurren kontseiluekin izandako saioetan landu daitezke, haurrek beren alkatearekin partekatu ahal izateko emaitzak.

FINANTZATZAILEA:



LAGUNTZAILEA:

